

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Programa hau kudeatzen duen administrazio unitatea Kultura Ekintzaren Zerbitzua da.

Programaren helburua da arabar guztiek kultura arloko zerbitzuen kalitate berbera jasotzea, bizi direneko lekua edozein dela ere, Araban gero eta inklusiboagoa den kultura baten baitan. Bere filosofia da lurraldeko kultura bizitzan modu orekatuan eragitea eta sustapen handia behar duen sektore batekin partekatutako lerro estrategikoak sortzea, bai trazio gaitasunarengatik bai gizartean balioak sortzeko duen garrantziarengatik.

Helburu horiek lortzeko oinarritzko jarduketetako bat da kultura arloko plangintza estrategikoari jarraitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 105/2017 Erabakiaren bitartez onetsi zen 2017-2020 urteetarako Kulturako Plan Estrategikoa eta bertan jasotzen ziren Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren lehentasunezko jarduketeta lerroak.

2021ean ebaluazio partaidetua egin zen planean desbideratze posibleak aztertze eta garatzen jarraitzeko. Ebaluaziotik atera zen lehen ondorioa izan zen helburu estrategikoek indarrean jarraitzen zutela. Beraz, funtsean plana tresna baliozkoa zen oraindik ere, baina, beharrezkoa da birbideratzea eta ebaluaziotik ateratako hobekuntza arloetan ezartzea.

Lehenengo plan horrekin bat etorritz, 2021ean plangintzarako tresna berri bat diseinatu zuten aurrekoari jarraipena emateko, kultura politikarako erreferentea eta orientatzailea izateko eta kulturarentzat eta eragileentzat adostutako eta partekatutako testuinguru berri bat eraikitzeko.

Programa honen ezinbesteko helburuen artean daude halaber kultura eta sormen sektoreari laguntzea

I. MEMORIA

La unidad administrativa que gestiona este programa es el Servicio de Acción Cultural.

La finalidad del programa es conseguir que todas y todos los alaveses tengan una misma calidad de servicios en materia cultural con independencia del lugar donde vivan y dentro de una cultura cada vez más inclusiva en Álava. Su filosofía es incidir equilibradamente en la vida cultural del Territorio y concitar líneas estratégicas compartidas con un sector que necesita un impulso importante, tanto por su capacidad tractora como por su importancia en la generación de valores en la sociedad.

Para cumplir con estos objetivos una de las actuaciones fundamentales es seguir la senda de la planificación estratégica en el ámbito cultural.

Así, mediante Acuerdo 105/2017, de 28 de febrero, del Consejo de Gobierno Foral, se aprobó el Plan Estratégico de Cultura (2017-2020), que recogía las líneas de actuación prioritarias del Departamento de Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava.

A lo largo del 2021 se llevó a cabo una evaluación participada del Plan para analizar posibles desviaciones y seguir avanzando en su desarrollo. La primera de las conclusiones extraída de la evaluación fue que los objetivos estratégicos seguían estando vigentes. Así que, en esencia, el Plan era todavía un instrumento válido, ahora bien, siendo necesario reorientarlo e implementando las áreas de mejoras extraídas de la evaluación.

En coherencia con este primer Plan, se inició en el 2021 el diseño de un nuevo instrumento de planificación que diera continuidad al anterior y que sirviera como referencia y orientación para la política cultural y que construyera un nuevo contexto de acción acordado y compartido para la cultura y sus agentes.

Entre los objetivos esenciales de este Programa se encuentra asimismo el acompañamiento al sector

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

garapenerako arretaren, modernizazioaren eta profesionalizazioaren bitartez.

Alde batetik, KulturAraba Bulegoak (aurrerantzean, KAB) aldundi honen eragile propio gisa egin duen lana ezinbestekoa izan da helburu hau betetzeko. Bulegoak orientazio, informazio eta laguntza zerbitzua ematen die Arabako kultura sektoreko erakundeei eta langile autonomoei. 2021ean sektoreari bideratutako arreta pertsonalizatuko eta laguntzako zerbitzua mantendu du eta kultura sustatzen dutenei zuzenduta egon zen. Halaber, eragileen artean *Topaketak* izeneko programazio egonkorra izan du. Hiru hilean behin egiten diren topaketa irekiak dira eta prestakuntza emateaz gain, lankidetzak sareak sortzea indartzen eta sustatzen dute.

Bestalde, sektorearen profesionalizazioa bultzatzeko beste bide bat da arte eszeniko eta musikalen prestakuntza ekintzetarako laguntzen deialdiak egitea, hau da, beka batzuk ematen dira EAEtik kanpoko prestakuntza zentroetan banakako prestakuntza espezializatua jasotzeko. 2021ean lau arabarrek 5.000 euro jaso zituzten atzerrian ikasten jarraitzeko.

Programa honetan jorrazteko azken helburua da kulturaren arloan zerbitzu kalitate berbera bermatzea jasotzaileen bizilekua albo batera utzita eta emakumeen eta gizonen artean tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa integratzea.

Horrekin lotuta eta administrazio unitateak egiten duen programazioari dagokionez aipatu behar da 2021ean programatutako jarduketekin lurraldearen % 92 baino gehiagora iritsi garela zazpi zikloetan. 2022ko ekitaldian programaziorik izan ez duten udalerririk jorratuko dira.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

1. Plangintza tresna berri bat diseinatu eta prestatzea.

Helburu hori lortu da, izan ere, plan berria diseinatzen hasi dira hurrengo plangintza aldirako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

cultural y creativo, a través de la atención al desarrollo, modernización y profesionalización de este.

Por un lado, la labor de la KulturAraba Bulegoa (KAB), como agente propio de esta Diputación, ha sido fundamental en el cumplimiento de este objetivo. La Bulego ofrece un servicio de orientación, información y acompañamiento a organizaciones culturales y profesionales autónomos del sector cultural de Álava. A lo largo del 2021 ha mantenido un servicio abierto de atención personalizada y acompañamiento dirigido al sector, dirigido a quienes promueven la cultura. Asimismo, ha mantenido una programación estable de *Topaketak* entre agentes. Unos encuentros trimestrales, de carácter abierto, que no solo tienen una finalidad formativa sino también la de reforzar y fomentar la creación de redes de colaboración.

Por otro lado, una segunda vía para incidir en la profesionalización del sector es la convocatoria de ayudas de acciones formativas en artes escénicas y musicales, es decir, unas becas encaminadas a promocionar la formación individual especializada en centros formativos de fuera del País Vasco. En el 2021, cuatro personas alavesas fueron becadas con 5.000 euros cada una para proseguir con sus estudios en el extranjero.

Como último de los objetivos a abordar en este programa es el de garantizar idéntica calidad de servicios en materia cultural con independencia del lugar de residencia e integrar el principio de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres.

A este respecto, y en cuanto a la programación que se realiza desde esta unidad administrativa, cabe reseñar que, con las actuaciones programadas en el 2021, en el marco de sus siete ciclos, se ha llegado a más del 92% del territorio. Serán aquellas poblaciones en las que no se ha programado objetivo del próximo ejercicio 2022.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1. Abordar el diseño y elaboración de un nuevo instrumento de planificación.

Se considera que se ha alcanzado el objetivo señalado dado que ya se inició el diseño del nuevo

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

eta 2022ko ekitaldian bukatzea aurreikusi da.

2. Planifikatutako jarduketan jarraipena egitea, bermatuz zerbitzu kalitate berbera eskaintzen dela kulturaren arloan jasotzaileen bizilekua albo batera utzita eta emakumeen eta gizonen artean tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa integratzea.

Kultura Ekintzaren Zerbitzuak programatutako 7 zikloen esparruan 148 jarduketa jarri dira martxan guztira. Bereziki lurraldean lan egin da, izan ere, bakarrik 8 gauzatu dira hiriburuan. Gainerakoak modu orekatuan banatu dira beste kuadrilletan. 47 udalerritan lan egin da, hau da, udalerrien % 92,16n. Trebiñuko enklabea gehituz gero, Arabako udalerrien % 88,68n jardun da.

Hauek dira kuadrilletako ehuneko datuak:

- Añanako Kuadrilla, % 24,32
- Aiara, % 14,18
- Kanpezu-Arabako Mendialdea, % 10,81
- Gorbeialdea, % 14,86
- Guardia-Errioxa, % 16,21
- Arabako Lautada, % 14,18
- Gasteiz, % 5,4

Jarduera guztiak gutxienez elebitasunaren ikuspuntutik landu dira eta lurralde eragileek hala eskatu duten gutzietan euskaraz egin dira oso-osorik. Musika ziklo guztiek gutxienez aurkezpen elebiduna izan dute.

Azkenik, programatutako jardueretan emakume sortzaileen kopurua orekatua izan da, izan ere, gizonezkoen ehuneko oso antzekoak izan dituzte. Datu hori musika arteen alderdian zehaztu daiteke. Antzinako musikaren, organo musikaren eta musika klasikoaren zikloetan 64 interpretekin parte hartu zuten kontzertuetan, eta horietatik 25 emakumeak izan ziren (% 39).

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

plan para el próximo periodo de planificación y está previsto que culmine en el ejercicio 2022.

2. Realizar el seguimiento de las actuaciones planificadas, garantizando idéntica calidad de servicio con independencia del lugar de residencia e integrando el principio de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres.

En el marco de los 7 ciclos programados desde el Servicio de Acción cultural se han puesto en marcha un total de 148 actuaciones. Se ha incidido especialmente en el Territorio, dado que tan solo 8 de las mismas se han llevado a cabo en la propia capital. El resto se han distribuido de modo equilibrado entre el resto de las Cuadrillas. Se ha llegado a 47 municipios, es decir, a un 92,16% de los mismos. Si sumamos el Enclave de Treviño se ha actuado en el 88,68% de los municipios alaveses.

Los datos en porcentaje por cuadrillas son los siguientes:

- Cuadrilla de Añana, 24,32%.
- Ayala, 14,18%
- Campezo-montaña alavesa, 10,81%
- Gorbeialdea, 14,86%
- Laguardia-Rioja, 16,21%
- Llanada alavesa, 14,18%
- Vitoria, 5,4%

Todas las actividades han estado contempladas como mínimo desde el punto de vista del bilingüismo, y siempre que los agentes territoriales lo han demandado, han sido desarrolladas exclusivamente en euskera. Aquellos ciclos que son musicales, han contemplado en todos los casos como mínimo la introducción del evento en bilingüe.

Por último, hay que añadir que en el conjunto de actividades programadas se mantiene un equilibrio en cuanto al número de mujeres cuyas creaciones han sido programadas, un % muy similar al de los hombres participantes. Este dato puede ser concretado en el aspecto de las artes musicales. En los ciclos de música antigua, órgano y clásica 64 distintos intérpretes han participado en los

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

3. Arabako Lurralde Historikoko kultura ekintza koordinatzea eta sareko lana sustatzea.

2021ean ardatz estrategiko gisa sektoreko lan koordinatua sustatu da.

Alde batetik, erakunde arloan eta aurreko plan estrategikoaren ondorioz aldian-aldian egiten diren bileren dinamika ezarri zen lurraldeko teknikariek, eta gaur egun finkatuta dago.

2021ean baterako bi lan saio egin ziren. Lehenengoa ekainean egin zen Agurainen. Bigarrena Gasteizko langile guztientzat izan zen foru instalazioetan.

Saio horietan nodo eta harreman berriak sortzen dira eta erakunde bakoitzaren lerro estrategikoen inguruan hausnartzen dute guztien artean.

Bestalde, erakundeen eta eragile profesionalen esparruan, KulturAraba Bulegoak bereziki helburu hori sustatzen lan egiten du *Topaketak* saioen bitartez. Horiek lan sare berriak sortzeko balio dute eta taldeko saioak egiten dituzte hausnartzeko eta esperientziak partekatzeko.

4. Arabako kulturaren eta sormenaren sektorearen garapena kontuan izatea.

2021ean pandemiak bereziki eragin zion kultura sektoreari eta bi dirulaguntza deialdi martxan jarri ziren sektoreari laguntzeko.

Alde batetik, ez-ohiko laguntza lerro bat gastu arrunta finantzatzeko. Bere helburu nagusia zen zuzeneko edo zeharkako galera ekonomikoaren egoera arintzea eta sektoreko profesionalen eta enpresen jarduera mantentzen laguntzea. Laguntza horiek emateko esfortzu ekonomiko handia egin zuen Kultura Zuzendaritzak eta guztira 524.000 euro izan ziren.

Beste aldetik, beste dirulaguntza lerro bat onetsi zen norgehiagoka prozeduran. Kultura Ekintza

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

conciertos, de los cuales 25 han sido mujeres (un 39%).

3. Coordinar la acción cultural del THA, impulsando el trabajo en red.

En el 2021 se ha incidido en impulsar el trabajo coordinado del sector como eje estratégico.

Por un lado, en el ámbito institucional, y consecuencia del Plan estratégico anterior, se estableció una dinámica de reuniones periódicas con el personal técnico del Territorio, actualmente ya consolidada.

Así, se han realizado en el 2021 dos sesiones de trabajo conjuntas. La primera de ellas, mantenida en junio se vino a realizar en Agurain. Para la segunda, se convocó a todo el personal en Vitoria, en instalaciones forales.

Unas sesiones que sirven para generar nuevos nodos, vínculos, y permite la posibilidad de reflexionar en común sobre las líneas estratégicas de cada entidad.

Por otro lado, en el plano de las entidades y agentes profesionales, la labor de la KulturAraba Bulegoa incide especialmente en el impulso de este objetivo mediante la puesta en marcha de las sesiones denominadas *Topaketak*, que vienen a fomentar la creación de nuevas redes de trabajo, mediante sesiones grupales que invitan a la reflexión y a compartir experiencias.

4. Atender al desarrollo del sector cultural y creativo alavés.

En el 2021, en un contexto de pandemia mantenido que ha afectado de manera especial al sector cultural, se pusieron en marcha dos convocatorias de subvenciones con objeto de apoyar al sector.

Por un lado, una línea de ayudas extraordinarias para la financiación del gasto corriente que tenía como fin principal paliar la situación de pérdida económica directa o indirecta y contribuir al mantenimiento de la actividad de profesionales y empresas del sector. Estas ayudas supusieron un importante esfuerzo económico para la Dirección de Cultura dotándolas con un total de 524.000 euros.

Por otro lado, fue aprobada otra línea de subvenciones, en concurrencia competitiva, y

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

Zerbitzuak kudeatu zuen eta hedapen eta erakusketako kultura proiektuak martxan jartzeko izan zen eta sektoreko eragilei eta lurraldeko udal eta kuadrillei zuzenduta zegoen.

Lehenengoak sektoreko elkarteak, enpresak eta profesionalak izan ziren eta horientzat guztira 165.000 euro bideratu ziren. Zenbateko horrekin askotariko alorretako (arte plastikoak, eszenikoak, musikalak, eta abar) 17 kultura proiekturi lagundu zitzaizen eta laguntzak 5.000 eta 12.000 euro artekoak izan ziren.

Lurraldeko erakunde sektoreari dagokionez, guztira 55.000 euro bideratu ziren 20 proiektu martxan jartzeko, eta proiektu bakoitzak gehienez ere 5.000 euro jaso zituen.

KulturAraba Bulegoaren lanari dagokionez, garrantzitsua da sektoreko eragile guztiei arreta pertsonalizatu eta jarraitua eman zaiela azpimarratzea, batzuk profesionalizatuago zeudelarik eta beste batzuk ez hainbeste.

Bulegoak dirulaguntzei buruzko informazioa ematen du, eragilei laguntzen die kultura proiektuak garatzen, kultura eta sormen proiektuen garapenari eta kudeaketari buruzko zalantzak argitzen ditu eta finantzaketari, prestakuntzari, fiskalitateari eta legezketasunari, baliabideei, eta abarri buruzko zalantzak ere argitzen ditu.

2021ean geldialdi ekonomiko nabarmena gertatu zen eta kultura sektoreari izugarri eragin zion. Aurreko urteekin alderatuta, KulturAraba Bulegoan askoz ere kontsulta gutxiago egin dira eta gutxiago lagundu da kultura proiektuak martxan jartzen. Hala ere, ekitaldian zehar 115 kontsulta espezifiko inguru zenbatu ziren. Gutxienez kontsulten % 56 emakumeek egin zituzten (kontsulten % 2-3n ezin da jakin egin zituztenen generoa zein zen). Halaber, euskaraz kontsulten % 24 egin zen.

Horrez gain, KulturAraba Bulegoak 6 laguntza prozesu egin zituen kultura proiektu jakinentzat.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

gestionada por el Servicio de Acción Cultural, para la puesta en marcha de proyectos culturales de difusión y exhibición, dirigida tanto a agentes del sector como a ayuntamientos y cuadrillas del territorio.

Para los primeros, asociaciones, empresas y profesionales del sector se destinaron un total de 165.000 euros. Con este importe fueron apoyados un total de 17 proyectos culturales de muy diversa índole (artes plásticas, escénicas, musicales, etc.) con ayudas que oscilaron desde los 5.000 euros a los 12.000.

En cuanto al sector institucional del Territorio fueron destinados un total de 55.000 euros que apoyaron la puesta en marcha de un total de 20 proyectos, con un importe máximo concedido de 5.000 euros por proyecto.

En cuanto a la labor de la KulturAraba Bulegoa cabe reseñar el mantenimiento de una atención personalizada y continuada a todos los agentes del sector, estén más o menos profesionalizados.

La Bulego ofrece información sobre subvenciones, acompaña y apoya a los agentes en el desarrollo de sus proyectos culturales, resolviendo dudas relativas al desarrollo y la gestión de los proyectos culturales y creativos, solventando cuestiones sobre financiación, formación, fiscalidad y legalidad, recursos...

El año 2021 ha sido un año muy representativo del parón económico que ha afectado sobremedida al sector cultural. En relación con años anteriores la labor de la KulturAraba Bulegoa ha reflejado una caída importante del número de consultas y de acompañamiento a la puesta en marcha de proyectos culturales. A pesar de todo, a lo largo del ejercicio se han contabilizado aproximadamente 115 consultas específicas resueltas. Al menos un 56% de estas consultas fueron realizadas por mujeres (hay un 2-3% de consultas efectuadas para las que no es posible determinar el género de su autoría). Asimismo destacar el índice de consultas planteadas en euskera que ascendieron a un 24%.

Asimismo, desde la KulturAraba Bulegoa se completaron 6 procesos de acompañamiento a

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

Hasiera batean badirudi datuak apalak direla, baina, kontuan hartu behar da egoera oso zalantzazkoa eta geldia izan zela.

Topaketak lurraldeko sormen eta kultura eragileei zuzendutako hausnarketa eta prestakuntza saioak dira, eta era berean, lanerako sare estrategikoak sortzeko eta sektorearen profesionalizazioa lortzeko enpresa pentsamendua sustatzeko ere balio dute.

KulturAraba Bulegoan hamabost egunean behin berrien aldizkari bat idazten dute izena eman duten lurraldeko kultura eragileentzat, eta bertan dirulaguntzei buruzko informazioa jasotzen da eta sarien, deialdien eta gainerako bitartekoen berri ematen da, guztiak ere baliagarriak eta interesgarriak izan daitezkeelarik sektorearentzat. Bidaltzen diren aldizkariaren % 39 irekitzen dira batez beste, eta zifra hori antzeko bidalketen batez bestekoaren gainetik dagoenez, badirudi bidalitako informazioa interesekoa dela.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak hainbat beka ditu arte eszenikoen prestakuntza espezializatua bultzatzeko, besteak beste dantza, antzerkia, zirku eta mimoa eta musikalak, eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko zentroetan egiten dira. Norgehiagoka bidezko prozedura irekia da eta Arabako egoiliarak diren 18 eta 30 urteko gazteei zuzenduta dago eta sektorearen profesionalizazioa du hizpide.

Deialdi horrek 20 urte baino gehiago daramatza indarrean, eta 100 pertsonari baino gehiagori lagundu die ibilbidean zehar goi mailako ikasketak egin ahal izateko. Laguntza horiekin atzerrian ikasteko proiektuetarako 5.000 euroko gastua eta estatuan egiten diren ekimenetarako 3.000 eurokoa estaltzen dira.

2021ean zazpi eskaera aurkeztu ziren eta 5.000 euroko lau beka eman ziren, izan ere, hautatu ziren eskaera guztiak atzerrian ikasteko ziren.

Eman ziren lau beketatik hiru arte musikalen alorrekoak izan ziren eta laugarrena arte eszenikoetarako. Beka jaso zuten hiru emakumek eta gizon batek

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

proyectos culturales concretos. Unos datos a priori modestos pero que se enmarcan en un contexto de incertidumbre y estancamiento.

Las denominadas *Topaketak*, sesiones de reflexión y formación para agentes creativos y culturales del Territorio, contribuyen a su vez a la creación de redes estratégicas de trabajo, a fomentar el pensamiento empresarial hacia la profesionalización del sector.

Añadir que desde KulturAraba Bulegoa se elabora un boletín quincenal de noticias para que los agentes culturales del territorio suscritos reciban información sobre subvenciones y estén al tanto de premios, convocatorias y más recursos que puedan resultar útiles e interesantes para el sector. La media de apertura del boletín se calcula sobre el 39% de los envíos, una cifra bastante por encima de la media habitual de los envíos de estas características y que habla del interés que despierta la información enviada.

Asimismo, la Diputación Foral de Álava dispone de Becas que apoyan la formación especializada en artes escénicas como la danza, teatro, circo y mimo, o las musicales, en centros situados fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Se trata de un procedimiento abierto de concurrencia dirigido a jóvenes de entre 18 y 30 años y residentes en Álava que incide en la profesionalización del sector.

Esta convocatoria lleva más de 20 años vigente y ha ayudado a más de 100 personas a lo largo de su recorrido facilitando poder llegar a hacer estudios de alto nivel. Estas ayudas cubren el gasto de 5.000 € para proyectos de estudio en el extranjero y 3.000 € para aquellas iniciativas que se realicen dentro del estado.

En el 2021 se presentaron siete solicitudes de las cuales se han concedido cuatro becas con un importe total de 5.000 euros cada una, dado que las todas las solicitudes seleccionadas eran para estudios efectuados en el extranjero.

De las cuatro becas otorgadas tres pertenecían al ámbito de las artes musicales y una cuarta al de las artes escénicas. Y, tres de las becas eran mujeres frente a un cuarto hombre becado.